

UDAL ZERBITZUAK ESKOLAKO ABSENTISMOAREN %40 ZUZENTZEN LAGUNDU ZUEN LEHENGO IKASTURTEAN

- **Bilboko Udalaren baliabide honen xedea eskolatu beharra betetzeak daukan garrantziari buruz eta adingabekoez hezkuntza jasotzeko duten oinarrizko eskubidea babesteaz ikasleak eta umeen senideak kontzientziaztea da.**
- **2012/13 ikasturtean, Eskola-absentismoaren Prebentzio, Detekzio eta Kontrol Zerbitzuak, guztira, 3 eta 16 urte bitarteko adin guztietako 1.058 ikasle artatu zituen, hau da, Bilbon matrikulatutako ikasle guztien %3. Horietako kasuen %80an, ikasleek eskola-absentismoko jokabide arina zuten.**
- **Ikasleen %75 baino gehiago derrigorrez eskolatzeko adinean zeuden (lehenengo zein bigarren hezkuntzan) eta horien arteko %83k sare publikoaren ikastetxeetan ikasten zuten. Ikasleen %83a gutxiengo kulturaletako kideak edo atzerritik etorritakoak ziren.**
- **Honako zerbitzua Bilboko ikastetxe guztietan eskaintzen da. Gizarte eta Etxebizitza Sailak 12 profesional ipini ditu adingabekoekin, sendiekin eta ikastetxeekin esku hartzeko prest.**
- **Kasu askotan zuzendu arren, kasu guztien %18a Eusko Jaurlaritzara bideratu ziren, eskola-absentismoko jokabidea zuzendu ezinik, edo Bizkaiko Foru Aldundira, adingabekoen babes falta handiko kasu larriak zirenean.**

Bilbon, 2013ko azaroaren 5ean. Eskola-absentismoko kasuen %40 2012/2013 ikasturtean zuzendu ahal izan ziren, besteak beste, Bilboko Udalaren Eskola-absentismoaren Prebentzio, Detekzio eta Kontrol Zerbitzuari esker. Udal baliabide honen asmoa eskolatu beharra betetzeak daukan garrantziaz eta adingabeko guztiek hezkuntza jasotzeko duten eskubideaz ikasleak eta haien familiak kontzientziaztea da.

Oinarrizko heziketako sistema 6 eta 16 urte bitartean derrigorrezkoa izan arren, eskola-absentismoaren fenomeno oraindik ematen da ikasgeletan eta ikasleengan ondorio larriak eduki ditzake, izan ere, ikaslearen eskola-porrota eta hezkuntza-sistema behar baino lehen uztea sarritan ekartzen dituen atzerapen akademikoaz gain, norbere garapena osatzea baldintzatu dezake eta, aurrekoaren ondorioz, pertsona hori gizartetik baztertuta geratzeko arriskua dago.

Eskola Absentismoaren Prebentzio, Detekzio eta Kontrolerako Bilboko Zerbitzua 3 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Horretan, absentismoaren arazoa jorratzen da, bai arlo akademikoan, bai adingabekoaren familiarekin batera. Gainera, eskolara joaten ez diren adingabekoak babesik gabe egoteko beste edozein arrisku detektatzen du.

Baliabide hau Bilboko 85 ikastetxetan baino gehiagotan erabiltzeko aukera dago. Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza eta Etxebizitza Sailak 12 profesional ipini ditu haien esku adingabekoen, haien familien eta ikastetxeen artean bitartekari lana egiteko asmoz.

Azken urteetan absentismoaren ehunekoa txikia izan da

Ikasleak absentismoa egiten duela ulertuko da ikastetxeak hilabete batean justifikatu gabeko %20tik gorako huts egiteak erregistratzen baditu. Definizio horren arabera, Eskola-absentismoaren Prebentzio, Detekzio eta Kontrol Zerbitzuak 3 eta 16 urte bitarteko 1.058 ikasle artatu zituen 2012/13 ikasturtean, hau da, Bilbon matrikulatutako ikasle-kopuru osoaren %3.

Azken hiru ikasturteetako datuak aztertuta, antzeko datuak atera dira, jarraian ikusi daitekeen bezala. Horren arabera, Bilbon eskola-absentismoan dauden ikasleen ezaugarriak zehaztu ditzakegu.

Ikasturteak	Artatutako ikasleak	Guztizkoaren gaineko %
2012/2013	1.058	2,97
2011/2012	1.100	3,09
2010/2011	1.027	2,93

Halaber, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Bilboko 85 ikastetxeetako **60tan lehengo ikasturtean absentismoko kasuren bat eman zen**, hau da, %71n.

Eskola-absentismoan dauden ikasleen ezaugarriak

Eskolara huts egiten duten ikasleen %75 baino apur bat gehiago derrigorrezko hezkuntzako adinekoak ziren (**%40 lehen hezkuntzan eta %36 bigarrean**), **horietako %24 baino ez ziren haur-hezkuntzan**. Hala ere, haur-hezkuntza derrigorrezkoa ez den arren, prebentzio-zerbitzuak batik bat hezkuntza-etapa honetako absentismoa kontrolatzen du, izan ere, lehen hezkuntza ere jarraipena izaten du. Hori bereziki larria

da haur-hezkuntza normaltasunik gabe 1. mailara heltzen diren umeentzako desabantaila handia delako. Hori dela eta, udal baliabide honetan horri ematen zaio aparteko garrantzia. Halaber, **Bigarren Hezkuntzako 1. ikasturtea ere beren beregi zaintzen da**, ikasleak ikasketetatik kanpo geratu ez daitezen funtsezko beste une bat delako.

Ikasleen jatorriari dagokionez, %86 gutxiengo kulturaletako kideak edo atzerritik heldutakoak dira -azken hauei dagokienez bertakoek baino mugikortasun handiagoa duten familiak kontuan hartu behar dira-. Izan ere, azken faktore honek aparteko garrantzia dauka, **baina neska eta mutilen artean ez dago ia alderik**, absentismoa bietan kasik zati berdinetan banatzen delako: %53,5 mutiletan eta %46,5 nesken artean.

Gainera, ikastetxeari edo aukeratutako ereduari dagokienez, %83ak sare publikoan ikasten zuen eta ia erdia A ereduan zegoen matrikulatuta (%46).


Azkenik, absentismoak jotako ikasleen %80ak absentismoko jokabide arina zuten (hau da, justifikatu gabeko falten ehunekoa %25ekoa zen).

Prebentzio Zerbitzuko Esku-hartzeak

Bilboko Udalak, Eskola-absentismorako Prebentzio, Detekzio eta Kontrol Programari dagokionez, **6.929 jarduera erregistratu zituen, horrela banatuta:**

- **3.661 jarduera, hau da**, guztiaren %53 ikastetxean bertan egin ziren, haietariko gehienak zuzendaritzarekin edo adingabekoaren erreferentziazko profesionalen batekin.
- **1.816 esku-hartze**, guztiaren %26 ikasleen familiekin egin ziren, hurrengo jardueren bidez: etxerako bisitak, kanpoaldean edo ikastetxean egindako elkarrizketak edo telefono-deiak.
- **829 jarduera**, guztiaren %12 baliabide komunitario desberdinekin egin ziren, informazioa lortu, esku-hartzeak koordinatu edo beste erakunde batzuetara bideratzeko.
- **329 esku-hartze**, hau da, guztizkoaren %5, adingabekoekin zuzenean egin ziren.
- **249 jarduera**, guztizkoaren %4 Udalak berak sustatuta egin da.

NORENTZAT DAGO ZUZENDUTA PROGRAMA HAU



- Ikastetxea
- Senidea
- Beste baliabide batzuk
- Adingabeak
- Udala

Absentismoko jokabidea zuzentzearen alorrean, lehengo ikasturtean absentismoagatik irekitako 1.058 kasuetatik %38 itxi eta zuzendutza jo ziren, ikasturtearen azken hiru hilabeteetan faltengatik ohartarazpenik ez egon ondoren.

Lortutako zuzenketa ehunekoa gorabehera, kasuen %18 beste herri-erakunde batzuetara bideratu ziren: Eusko Jaurlaritza, absentismoko jokabidea zuzendu ezin zenean, edo Bizkaiko Foru Aldundira, adingabeak babesik gabe uzteko kasu larriak zirelako.

Era berean, 2013-2014 ikasturtean Gizarte Ekintza eta Etxebizitza Sailak apurka-apurka sartzan ibiliko da zerbitzu honen lana Adingabekoen Programan aurreikusitako gainerako jardueretan. Azken hauen xedea adingabekoen babes-falta dagoen egoerak gutxitzea eta horiei aurrea hartzea da.

UDALA • AYUNTAMIENTO

Prentsa Kabinetea - Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48007 Bilbao

Tel.: 94 420 52 61 / 94 420 48 88 Faxa: 94 420 52 16 eposta: prensa@alcaldia.bilbao.net www.bilbao.net